


**Fiskalizatze-Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Euskaltzaindia**


**Real Academia de la Lengua Vasca**

**1993**



## AURKIBIDEA/ÍNDICE

<b>1. SARRERA .....</b>	<b>3</b>
<b>2. ONDORIOAK .....</b>	<b>4</b>
2.1 Helburua, hedapena eta mugak .....	4
2.2 Euskaltzaindiak 93.12.31n zituen finantz egoerei buruzko iritzia .....	4
2.3 Kudeaketaren arrazoikotasunaz .....	4
2.4 Finantz egoerak .....	5
2.5 Ekonomia eta finantzazko egoera .....	6
<b>3. AZALPEN ATALAK .....</b>	<b>7</b>
3.1 Izaera eta eginkizunak .....	7
3.2 Aurkezpenerako oinarriak .....	8
3.3 Gauzazko higiezindua .....	9
3.4 Erakunde publiko zordunak eta jasotako dirulaguntzak .....	10
3.5 Diruzaintza .....	11
3.6 Epe luze eta motzerako Bankuekiko zorrak .....	11
3.7 Ordaintzeko dauden ordainsariak .....	12
3.8 Erakunde publiko hartzekodunak .....	12
3.9 Salmenta garbiak .....	12
3.10 Erosketak .....	14
3.11 Kanpoko zerbitzuak .....	15
3.12 Zergak .....	18
3.13 Langilego gastuak .....	19
3.14 Finantz gastuak .....	20
<b>4. KUDEAKETARI BURUZKO ALDERDI AIPAGARRIAK .....</b>	<b>21</b>
4.1 Antolakuntza .....	21
4.2 Batzordeak .....	22
4.3 Hizkuntz Atlasa eta Orotariko Euskal Hiztegia .....	23
4.4 Liburutegia .....	25
4.5 Ekonomia-finantzazko egoera .....	25
4.6 Gomendioak .....	26
<b>ERASKINAK</b>	
1.ERASKINA Euskaltzaindiak aurkeztutako egungo organigrama .....	29
2.ERASKINA HKEEak eta Nafarroako Comptos Ganbarak (NCG) proposaturiko egungo organigrama .....	30
3.ERASKINA Akademi-egitura .....	31
<b>ARRAZOIBIDEAK .....</b>	<b>33</b>



<b>1. INTRODUCCIÓN .....</b>	<b>35</b>
<b>2. CONCLUSIONES.....</b>	<b>36</b>
2.1 Objetivo, alcance y limitaciones .....	36
2.2 Opinión sobre los estados financieros de Euskaltzaindia a 31.12.93 .....	36
2.3 Sobre la racionalidad de la gestión .....	37
2.4 Estados financieros .....	37
2.5 Situación Económico-financiera .....	38
<b>3. APARTADOS EXPLICATIVOS.....</b>	<b>39</b>
3.1 Naturaleza y actividades .....	39
3.2 Bases de presentación .....	40
3.3 Inmovilizado material .....	41
3.4 Entidades públicas deudoras y subvenciones recibidas .....	42
3.5 Tesorería .....	43
3.6 Deudas con bancos a largo y corto plazo .....	43
3.7 Remuneraciones pendientes de pago .....	44
3.8 Entidades públicas acreedoras .....	44
3.9 Ventas netas .....	44
3.10 Compras .....	46
3.11 Servicios Exteriores .....	47
3.12 Tributos .....	50
3.13 Gastos personal .....	51
3.14 Gastos financieros .....	52
<b>4. ASPECTOS DESTACABLES DE GESTIÓN .....</b>	<b>54</b>
4.1 Organización .....	54
4.2 Comisiones .....	55
4.3 Atlas lingüístico y Diccionario General Vasco .....	56
4.4 Biblioteca .....	58
4.5 Situación económico-financiera .....	58
4.6 Recomendaciones.....	59
<b>ANEXOS</b>	
ANEXO 1 Organigrama actual presentado por Euskaltzaindia .....	62
ANEXO 2 Organigrama actual propuesto por T.V.C.P. y C.C.....	63
ANEXO 3 Estructura académica.....	64
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>66</b>

## 1. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren eta Nafarroako Comptos Ganbararen artean izenpetutako Marko-Akordioaren babesean, lehenengoz eta elkartasunean Euskaltzaindiaren gaineko fiskalizatze-lana mamitu da. Lan hau gauzatu ahal izateko bi erakundeen zuzendaritzapean jardungo zuen lantalde mistoa osatu zen.

Euskaltzaindia, 1918an Oñatiko antzinako Unibertsitatean egin zen irailaren 1etik 8ra bitarteko Euskal Ikasketen 1. Kongresuan sortu zen; Erakundearen estatutuak Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Gipuzkoako Diputazioek 1919ko urriaren 7an oneritzi zituzten.

1976an Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministeritzak proposaturik eta aurrez urte bereko otsailaren 20ko bileran Ministro-Batzordeak aztertu zuelarik, otsailaren 26ko 573/76 Errege Dekretu bitartez ofizialtasuna aitortu zitzaion, bere Estatutuak eta *Euskaltzaindia* izena oneritzez.

Bestetik, Euskal Herriko Kontseilu Nagusiak 1978ko martxoaren 6an egindako bileran Euskaltzaindia Euskal Herriko erakunde ofizial izendatzeko erabakia hartu zuen, euskal hizkuntzazaindu, landu, sendotu eta bateratzeko egitekoa aitortzen ziola. Egoera hau Gernikako Estatutuak sendetsi zuen, bertako 6. artikulua, 4. atalak, «euskara-alorrean *Euskaltzaindia* da erakunde ofiziala» adierazten baitu.

Nafarroako Gobernuak, abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 3. artikuluan, 3. atalean Euskaltzaindiari aitortzen dio euskara-alorrean erakunde-ofizialtasuna.

1991. urtearen amaiera aldera, Bizkaiko Foru Diputazioak zaharberritu eta dohainik erabiltzeko utzitako etxe batean, Bilboko Plaza Berrian, Euskaltzaindiaren egoitza berria zabaldu zen.

## **2. ONDORIOAK**

### **2.1 LANAREN HELBURUA, HEDAPENA ETA MUGAK**

Lan honen bitartez, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak eta Nafarroako Comptos Ganbarak, 1993-12-31ko finantz-egoerak soil-soilik oinarri hartuta, Euskaltzaindiaren ekonomia-finantzazko egoerari buruzko iritzia azaldu dute, aurreko urtealdiko datuekin batere alderatu gabe. Horretarako, 1993-12-31n finantz-egoeren kontularitza eta administraziozko agiri-euskarriak aztertu ditugu.

Euskaltzaindiak 1993. urtealdian Kontabilitaterako plangintza Orokorra ezarri du. Plangintza hau ez zen egiaz 1993ko urtarrilaren 1ean ezarri eta ondorioz, finantz-egoerak abenduaren 31n hainbat huts erakusten zituen; huts hauek guztiak, egindako lanean zehar zuzendu dira, Euskaltzaindiak proposatu dizkiogun zuzenketa oro onartu baititu, horrek, Finantz-Egoeren itxiera aldatzea ekarri duelarik.

### **2.2 EUSKALTZAINDIAK 93.12.31N ZITUEN FINANTZ-EGOEREI BURUZKO IRITZIA**

Euskaltzaindiaren urteko kontuak aztertu ditugu, 1993ko abenduaren 31n egoera-balantzea eta data horretan amaitutako urtealdiari dagokion galdu-irabazien kontua besarkatzen dituela. Egindako lana oinarri hartuta, osotasunean aipatu urteko kontuei buruzko iritzia ontzea da gure erantzukizuna. Lana, orohar onartutako auditoretza-arauei jarraiki mamitu da, hautatutako frogak eginez urteko kontuen ebidentzia egiaztagarria baieztatu, kontuen aurkezpen osoa, erabilitako kontularitzazko printzipioak eta egindako haztaketa balio-neurtu direla.

Euskaltzaindiaren liburutegia zerrendaratua dago eta gutxigora behera 90.000 ale osatzen ditu liburuki eta atalen artean (gutunak, e.a.), oraindik balioztatu gabe daudenak.

Euskaltzaindiaren argitalpen-izakinak ez daude zerrendaratuak eta honenbestez, ezin da jakin 1993ko abenduaren 31n duten balioa.

Gure ustez, Liburutegiaren balioztaketa eta argitalpen-biltokiaren balioa egiaztatzerik izanez gero, beharrezko gerta zitezkeen zuzenketek eragindako ondorioak alde batera utzita, txosten honi erantsitako 1993. urtealdiko urteko kontuek, oinarritzko alderdi guztietan 1993ko abenduaren 31n Euskaltzaindiaren ondare eta finantz-egoeraren eta data horretan amaitutako urtealdian zehar mamitutako eragiketen emaitzen irudi leiala erakusten dute, eta orohar onartutako kontularitzazko printzipio eta arauei jarraiki, egoki ulertuak izateko behar hainbateko informazioa biltzen dute.

### **2.3 KUDEAKETAREN ARRAZOIZKOTASUNAZ**

Gure lana egitean gauzazko oztopoak izan ditugulako, ezin izan dugu Euskaltzaindiaren kudeaketaren eraginkortasun eta zuhertasunari buruzko azterlana gauzatzerik izan. Halaz guztiz ere, gure lanean zehar azaleratu zaizkigun txikikeriak txosten honetako 5. idazpuruan daude jasoak.

## 2.4 FINANTZ EGOERAK

EGOERA BALANTZEA AKTIBOA	Azalpen atalak		Milaka-pta.
GAUZAZKO HIGIEZINDU GARBIA .....	(3.3)		104.323
KOSTUA .....		127.881	
PILATUTAKO AMORTIZAZIOA .....		(23.558)	
ZORDUNAK .....			16.846
BEZEROAK .....		6.201	
LANGILEGOARI EPE MOTZERAKO EMANDAKO KRED. ....		84	
EPE MOTZERAKO OSATUTAKO FIDANTZA .....		119	
ERAKUNDE PUBLIKO ZORDUNAK .....	(3.4)	10.442	
DIRUZAINZA .....	(3.5)		4.960
ALDIZKAKOTZEAGATIKO ZUZENKETAK .....			375
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>			<b>126.504</b>

EGOERA BALANTZEA PASIBOA	Azalpen atalak		Milaka-pta.
BEREZKO DIRU-FONDOAK .....			(60.534)
AURREKO URTEALDIETAKO ZOR EMAITZAK .....		(14.846)	
URTEALDIAREN GALERA.....		(45.688)	
KAPITAL DIRULAGUNTZA OFIZIALAK .....	(3.4)		104.323
EPE LUZERAKO HARTZEKODUNAK .....	(3.6)		1.875
EPE MOTZERAKO HARTZEKODUNAK .....			80.840
HORNITZAILEAK .....		12.487	
ORDAINTZEKO DAUDEN ORDAINSARIAK .....	(3.7)	6.837	
ERAKUNDE PUBLIKO HARTZEKODUNAK .....	(3.8)	15.349	
MAILEGU ETA BESTELAKOENGATIK EPE MOTZERAKO ZORRAK .....	(3.6)	46.167	
<b>ZORRA GUZTIRA</b>			<b>126.504</b>

GALDU-IRABAZIEN KONTUA	Milaka-pta.	
	Azalpen atalak	
SALMENTA GARBIAK .....	(3.9)	11.389
USTIAPENERAKO DIRULAGUNTZAK .....	(3.4)	195.236
DIRUSARRERAK .....		206.625
EROSKETAK .....	(3.10)	(18.660)
KANPOKO ZERBITZUAK .....	(3.11)	(109.162)
ZERGAK .....	(3.12)	(180)
LANGILEGO GASTUAK .....	(3.13)	(121.207)
GALERA GORDINA .....		(42.584)
HIGIEZINDUA AMORTIZATZEKO HORNIDURAK .....	(3.3)	(12.750)
GALERA GARBIA .....		(55.334)
FINANTZ SARRERAK .....		142
FINANTZ GASTUAK .....	(3.14)	(3.246)
OHIZKO EGINTZEN GALERA .....		(58.438)
URTEALDIKO EMAITZARA ALDATURIKO KAPITAL DIRULAGUNTZAK .....	(3.4)	12.750
URTEALDIKO GALERA .....		(45.688)

## 2.5 EKONOMIA-FINANTZAZKO EGOERA

Pilatutako mentsa finantzatzeko beharrezko den banku-zorra, 1993ko abenduaren 31n 48 milioi pta.koa izan da. 1994. urterako bertako gastuek duten zorroztasun eta dirulaguntzen bilakaeragatik, epe motzerako eskagarria den nabarmen hazi da. Aurrikusi diren egintzetarako dirusarrera aukera ezberdinak aztertuaz, mentsa kitatu eta datozen urteko aurrekontuak orekatzea hartu behar da helburutzat. Orobat, Jarraipenerako Batzordeak, aurrekontu horiek gauzatzeko direnean sor daitezkeen desbideraketak aztertu eta zuzentzeko bideak proposatu beharko dizkio Euskaltzaindiako Osokoari.

### 3. AZALPEN ATALAK

#### 3.1 IZAERA ETA EGINKIZUNAK

Euskaltzaindia Administrazioak onartutako erakunde ofiziala da. Ondorio guztietarako Zuzenbide Pribatuak araupetzen du, eta duen osakera bereziagatik ez zaio izaera publikodun beste inolako erakunderi egokitzen.

Euskaltzaindiak gauzatzen dituen eginkizun nagusiak 3. Eraskinean bildu ditugu, eta lau atal nagusitan zati-banatzen dira:

- Ikerketa Batzordea
- Jagon Batzordea
- Egiturazko Batzordea
- Batzorde Suntsikorra

Ekintza hauen finantzaketa, hein handi batean behintzat, Herri-Administrazioetatik jasotako dirulaguntza bitartez egiten da; horretarako, 1989. urtean Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Diputazioekiko eta Euskal Herriko eta Nafarroako Gobernuekiko akordio bat izenpetu zen, 6 urteko iraupena izango zuena.

Akordio honek, besteak beste, Euskaltzaindiak urtero garatu beharreko ekintzak araupetzen ditu, bete beharreko programak, beharrezko baliabideak eta lantaldeen zuzendaritza eta kontrol sistema zehaztuaz.

Urteko plangintzaren bilakaera Jarraipen Batzorde batek araupetzen du, akordioa izenpetu zuten administrazioetako sei ordezkari eta Euskaltzaindiako hiru ordezkari -hauek hizpidea dute, ez botua- osatzen dutela. Plantila eta bestelako baliabide materialak aldatu nahi izanez gero, Batzorde horren adostasuna jaso beharko da aurretik.

Administrazioek bestetik, egitasmoak gauzatu eta barne funtzionamenduko gastuetarako 1989an 159,4 milioi pta. emateko konpromezua hartu zuten bere gain; hurrengo urteetarako berriz, administrazio bakoitzari dagokion ehunekoa jaso dugu ondoko taulan:

	%
Eusko Jaurjaritza .....	58,403
Nafarroako Foru Gobernua .....	10,342
Arabako Foru Diputazioa .....	4,507
Gipuzkoako Foru Diputazioa .....	10,342
Bizkaiko Foru Diputazioa .....	16,406
Guztira	100

Orobat, Akordioan finkatutakoa koordinatzeko eta betetzen dela bermatzeko Jarraipen Batzordea eta Batzorde Teknikoa sortu dira.



Ondorengo urteetan Akordioari egindako eraskinak izenpetu dira. Honen ondorioz, 1993 arte jasotako dirulaguntzak eta 1994rako Akordio horren arabera aurrikusitakoak, honako hauek izan dira:

Milioi-pta		
URTEA	ZENBATEKOA	% ADIERAZKARIA OINARRIA 1989=100
1989	159,4	100
1990	171,7	108
1991	179,2	112
1992	186,0	117
1993	191,3	120
1994	163,1	102

### 3.2 AURKEZPENERAKO OINARRIAK

Euskaltzaindia 1993. urtealdian hasi da indarrean dagoen Kontabilitaterako Plangintza Orokorra erabiltzen, eta honenbestez, ezinezkoa izan da aurreko urtealdiko datuekin alderaketarik egitea.

Erantsitako finantz-egoerak, kontularitzazko printzipio eta irizpideak eta Kontabilitaterako Plangintza Orokorreko balio-arauak gordez tajutu dira. Segidan, erabili diren balioztaketa-arau oinarrizkoenak jasoko ditugu.

**a)** Gauzazko higiezindua: gauzazko higiezindua osatzen duten gaiak erosketa-kostuarekin balio-neurtzen dira eta horren amortizazioa, ondasuna erosi eta hurrengo urtetik aurrera sistema lineala erabiliaz kalkulaten da, aktibo bakoitzaren erabilgarritasun epea oinarri hartuta. Hona hemen aktibo horiek:

GAIA	URTEAK
Etxeak eta bestelako eraikuntzak .....	33
Instalakuntzak .....	10
Altzariak .....	10
Garraiogaiak .....	10
Informazio-prozesurako ekipoak .....	5
Beste higiezindu bat .....	10

Euskaltzaindiko liburutegia balio-neurtu gabe dago eta urtealdian egiten diren erosketak gastuen atalburuan sartzeko irizpidea erabili da (4.10 atala).

**b)** Izakinak: argitalpenen stocka zerrendaratu eta balioztatu gabe dago, urtealdiko gastu modura Euskaltzaindiaren argitalpen-egitekoak eragindakoa hartuaz.

c) Kapital-dirulaguntza ofizialak: Egiten diren gauzazko higiezinduaren erosketak finantzatzen dituzte. Urtero dirusarrera modura, urtealdiaren emaitza atalean, amortizazioagatiko horniduraren pareko den zenbatekoa sartzen da.

### 3.3 GAUZAZKO HIGIEZINDUA

Erakundeak ez du ondasunak behar bezala bereizi, balioztatu eta zenbaturik jasoko dituen higiezindu-zerrendarik. Balantze-balioa, ondasunek erosi zirenean zuten prezioarekin bat dator. Ondasunak Euskaltzaindiaren ondarean fisikoki gordeak zeudela egiaztatzeko, menpetasunik gabeko enpresa batek ondasunen zerrenda fisikoa eta bere balioaren neurketa egin zituen.

Egoitza nagusiko higiezinduak ez du aseguru babesik.

Hona hemen, urtean zehar gorpuztutako diru-kontuak, bai kostuari bai pilatutako amortizazioari dagokionez:

	Milaka-pta.									
	Kostua			Pilatutako amortizazioa				Garbia		
	92.12.31n Saldoa	Gehigarriak Urtea	Bajak	93.12.31n Saldoa	92.12.31n Saldoa	Hornidurak Urtea	Bajak	93.12.31n Saldoa	92.12.31	93.12.31
Etxeak eta bestelako eraikuntzak	13.000	-	-	13.000	2.730	390	-	3.120	10.270	9.880
Bestelako Instalakuntzak	13.409	-	-	13.409	881	1.341	-	2.222	12.528	11.187
Onibarrak	66.620	140	-	66.760	4.055	6.662	-	10.717	62.565	56.043
Garraiogaiak	1.248	16	-	1.264	-	125	-	125	1.248	1.139
Informazio-prozesurako ekipok	23.011	8.870	-	31.881	3.111	4.105	-	7.216	19.900	24.665
Beste higiezindu bat	1.274	293	-	1.567	31	127	-	158	1.243	1.409
<b>Guztira</b>	<b>118.562</b>	<b>9.319</b>	<b>-</b>	<b>127.881</b>	<b>10.808</b>	<b>12.750</b>	<b>-</b>	<b>23.558</b>	<b>107.754</b>	<b>104.323</b>

### 3.4 ERAKUNDE PUBLIKO ZORDUNAK ETA JASOTAKO DIRULAGUNTZAK

	Milaka-pta.
Dirulaguntzengatiko Erakunde Publiko Zordunak .....	4.192
BEZarengatiko Erakunde Publiko Zordunak .....	6.250
	10.442

Dirulaguntzengatiko Erakunde Publiko Zordunen saldoa, 89.10.07an izenpetutako Akordioaren arabera hitzartu ziren dirulaguntza kontzeptuan, 93.12.31n Arabako Foru Diputaziotik jasotzeko dagoen diru-kopuruari dagokio.

Ondoren, 1993an jasotako dirulaguntzak zerrendaratu ditugu:

DIRULAGUNTZA	Milaka-pta.		
	GUZTIRA	USTIAPENA	KAPITALA
Eusko Jauriantza (1) .....	102.912	97.593	5.319
Nafarroako Foru Gobernua .....	20.199	20.199	-
Arabako Foru Diputazioa .....	8.384	8.384	-
Bizkaiko Foru Diputazioa .....	32.000	32.000	-
Gipuzkoako Foru Diputazioa .....	20.199	20.199	-
Izenpetutako Akordioaren arabera	183.694	178.375	5.319
Hezkuntza Ministeritza .....	10.912	6.912	4.000
Egitasmo zehatzetarako .....	6.146	6.146	-
Iparraldeko Erakunde Publikoak .....	2.500	2.500	-
Bestelako laguntzak .....	1.303	1.303	-
Guztira	204.555	195.236	9.319

(1) Eusko Jauriaritzatik eskudirutan jasotako 102.912 milaka pta.z gain, Akademiak 7.700 milaka pta.ko zenbatekoan Eusko Jauriaritzaren Informatika Elkarteak emandako zerbitzuak jaso ditu, kopuru hori emaitzen kontuan ez dirusarrera bezala, ez gastu bezala, azaltzen ez dela.

4.2 atalean adierazi bezala, kapital-dirulaguntzen diru-kontuak 1993. urtealdian honako hauek izan dira.

	Milaka-pta.
93.01.01ean saldoa .....	107.754
1993. urteko Kapital-dirulaguntzak .....	9.319
Urtealdiaren emaitzari erantsitako Kapital-dirulaguntzak .....	(12.750)
93.12.31n saldoa	104.323

### 3.5 DIRUZAINNTZA

Honako atalotan banatzen da:

	Milaka-pta.
Kutxa .....	117
Bankuak .....	4.839
Atzerri-txanponeko kutxa .....	4
<b>Guztira</b> .....	<b>4.960</b>

Kutxa saldoak Erakundearen bildutako kutxa ezberdinen saldoa biltzen du: Egoitza, Liburutegia, Donostia-San Sebastián, Vitoria-Gasteiz, Iruñea eta Hiztegia.

Banku-saldo guztiak erabilera askekoak dira, normahik erabiltzekoak eta % 0,10eko ordainsaridun 18 banku kontutan banatuak daude. Badira gainera, erabilitako bi kreditu-kontu (4.6 atala).

### 3.6 EPE LUZE ETA MOTZERAKO BANKUEKIKO ZORRAK

Hona hemen 93.12.31n egoera:

								Milaka-pta.
BANKETXEA	MAILEGUA KTO.KONTUA	EMANDAKO ZENBATEKOA	MUGAEGUN DATA	INTERES MOTA	93.12.31 ZOR-KAPIT.	EPE LUZERA	EPE MOTZERA	IRAUNGI GAB. INTERESAK
Euskadiko Kutxa	Hipoteka- mailegua	9.000	97.05.15	%16,5	2.625	1.875	750	-
Euskadiko Kutxa	4159 zk.dun kreditu-kontua	30.000	94.08.06	%15	29.518	-	29.518	745
Euskadiko Kutxa	4182 zk.dun kreditu-kontua	20.000	94.06.20	%10,125	15.154	-	15.154	-
<b>Guztira</b>		<b>59.000</b>			<b>47.297</b>	<b>1.875</b>	<b>45.422</b>	<b>745</b>

94.07.31n mailegu eta kredituek baldintza berberei eusten zieten.

### 3.7 ORDAINTZEKO DAUDEN ORDAINSARIAK

Euskaltzaindiak, lanpostuen mailari eta langilegoarentzako bestelako onurei buruzko gaietan, Eusko Jaurlaritzaren lan baldintzak araupetzen dituen indarreko hitzarmenaren irizpideei eutsi die.

«Ordaintzeko dauden Ordainsariak» kontuaren saldoak 1993an sortu eta 93.12.31n ordaintzeko zeuden langilego-gastuak, ondoko xehekapenaren arabera, biltzen ditu:

	Milaka-pta.
Egun-sariengatik (93 urria-aben.).....	1.344
1993ko E.J.ren Hitzarmenera igoerak egokitzeagatik .....	5.493
<b>Guztira</b>	<b>6.837</b>

### 3.8 ERAKUNDE PUBLIKO HARTZEKODUNAK

Kontu hau ondoko atalotan zati-banatzen da:

	Milaka-pta.
NUIZarengatik hartzekodun den Ogasun Publikoa .....	7.947
93ko 4. hiruhilabetekoa .....	6.592
E.J.aren hitzarmenera egokitzea .....	1.355
Eragindako BEZagatik hartzekodun den Ogasun Publikoa...	201
<b>Ogasun Publiko hartzekoduna guztira</b>	<b>8.148</b>
Hartzekodun den Gizarte Segurantza	
93ko azaroa eta abendua .....	5.417
E.J.aren 93ko Hitzarmenera egokitzea .....	1.784
<b>Hartzekodun den Gizarte Segurantza guztira</b>	<b>7.201</b>
<b>Guztira</b>	<b>15.349</b>

### 3.9 SALMENTA GARBIAK

Kontu honen saldoak ondoko kontzeptuok biltzen ditu:

	Milaka-pta.
Argitalpenen salmentak .....	8.390
Bestelako zerbitzuengatik sarrerak .....	3.055
<b>Salmenta gordinak guztira</b>	<b>11.445</b>
Ordainagiriaren itzulerak .....	(56)
<b>Salmenta garbiak guztira</b>	<b>11.389</b>

«Argitalpenen salmenta» kontzeptuean, liburuen eta Euskaltzaindiaren argitalpen-zerrendan zehazturik dauden bestelako argitalpenen salmentak daude jasoak, argitara emandako urtearen arabera ondoko zerrendan sailkatu ditugunak:

	Milaka-pta.
- Liburuen eta Euskaltzaindiak 1993. urtean argitara emandako bestelako argitalpenen salmentak (harpidetzak izan ezik).....	1.252
- Euskera aldizkariaren harpidetzak .....	1.290
- Liburuen eta Euskaltzaindiak 1992an eta lehenagokoetan argitara emandako edo eman gabeko bestelako argitalpenen salmentak .....	5.848
<b>Guztira</b>	<b>8.390</b>

Segidan, liburuen eta Euskaltzaindiak 1993. urtean argitara emandako bestelako argitalpenen (harpidetzak izan ezik) salmentek eragindako dirusarrerak banatu ditugu.

1993ko ARGITALPENA	Milaka-pta.
Euskera 1992 aldizkaria, I eta II aleak .....	103
Iparraldeko Goi nafarrerazko aditz laguntzailearen morfologia (I) .....	64
Iparraldeko Goi nafarrerazko aditz laguntzailearen morfologia (II) .....	79
Hegoaldeko Goi nafarrerazko aditz laguntzailearen morfologia .....	96
Erronkierazko aditz laguntzailearen morfologia .....	79
IKER-7 .....	481
Cendea de Ansoain (Onomasticon Vasconiae bilduma).....	23
Gramatika Laburra .....	327
<b>Guztira</b>	<b>1.252</b>

«Bestelako Zerbitzuengatiko sarrerak» kontzeptuean, ondoko xehekapenaren arabera Euskaltzaindiak emandako zerbitzuak bildu dira:

	Milaka-pta.
Nafarroako Toponimia xeheari buruzko hizkuntz-aholkularitza zerbitzuagatik .....	2.873
Fotokopia eta EGA azterketako eskubideen zerbitzuengatik .....	182
<b>Guztira</b>	<b>3.055</b>

### 3.10 EROSKETAK

Kontu hau ondoko atalek osatzen dute:

	Milaka-pta.
Liburu-erosketa (liburutegia) .....	2.556
Beste enpresa batzuek egindako lanak .....	16.104
Guztira	18.660

Kontu honek liburutegirako erositako liburuek eragindako gastuak ezezik, urtealdian zehar Argitalpenetarako egin diren beharrezko gastuak ere besarkatzen ditu (konposaketa, imprimaketa, azaleztaketa gastuak...).

Hona hemen 1993. urtean argitara emandako liburu eta argitalpenek eragindako gastuak:

1993ko ARGITALPENA	Milaka-pta.
Euskera 1992 aldizkaria, I eta II aleak .....	4.817
Iparraldeko Goi nafarrerazko aditz laguntzailearen morfologia (I) .....	1.038
Iparraldeko Goi nafarrerazko aditz laguntzailearen morfologia (II) .....	952
Hegoaldeko Goi nafarrerazko aditz laguntzailearen morfologia .....	1.126
Erronkarietarako aditz laguntzailearen morfologia .....	170
IKER-7 .....	1.529
Andoingo toponimia (Onomasticon Vasconiae bilduma) .....	748
Cendea de Ansoain (Onomasticon Vasconiae bilduma) .....	1.425
Gramatika Laburra .....	2.631
1993an argitara emandako argitalpenak	14.436
Liburu-azalen diseinu eta liburu eta argitalpenen inprimaketa gastuak, 93.12.31n argitaragabeak .....	1.668
Guztira	16.104

### 3.11 KANPOKO ZERBITZUAK

Sail honen xehekapena ondoko hau da:

	Milaka-pta.
Ikerketa gastuak .....	75.893
Alokairuak .....	2.630
Konponketak .....	3.726
Zerbitzu profesionalak .....	7.109
Garraioak .....	1.157
Aseguruak .....	156
Banku-zerbitzuak .....	1.019
Publizitatea eta harreman publikoak .....	1.140
Zuzkidurak .....	8.296
Bestelako zerbitzuak .....	8.036
<b>Guztira</b>	<b>109.162</b>

- Ikerketa gastuak

Atalburu honetako saldoak, oroit-idazki eta separaten (argitalpenen edizio txikiak) konposaketa-gastuak ez ezik, egitasmo ezberdinei ezargarriak zaizkien gastuak ere biltzen ditu; hona hemen banaketa:

	Milaka-pta.
Oroit-idazkiaren konposaketa-gastuak .....	3.346
Egitasmoek eragindako gastuak .....	72.547
<b>Guztira</b>	<b>75.893</b>



Ondoren, egitasmo banatan gastu mota bakoitzeko eragindako kostuak zatibanaturik jasotzen dituen taula osatu dugu:

BATZORDEAK	ORDAINSARIAK		EGUNSARIAK	BESTELAKO GASTUAK	GUZTIRA
	KONTRATATUAK	BEKADUNAK			
Lexikoa.....	-	794	379	-	1.173
Hiztegi Batua.....	-	-	1.001	-	1.001
Orotariko Hiztegia.....	35.858	2.051	228	1.285 <sup>(1)</sup>	39.422
Gramatika.....	-	-	1.897	27	1.924
Euskal Herriko Atlasa.....	22.971	-	233	282 <sup>(2)</sup>	23.486
Onomastika.....	-	2.732	781	192 <sup>(3)</sup>	3.705
Herri Literatura.....	-	-	771	182 <sup>(3)</sup>	953
Literatura Ikerketa.....	-	-	883	-	883
<b>Guztira</b>	<b>58.829</b>	<b>5.577</b>	<b>6.173</b>	<b>1.968</b>	<b>72.547</b>

OHARRAK: 1.Gizarte Segurantzako gastuak Langilego Gastuetan barne-hartu dira (4.13 atala).

2.Egunsariak Batzordeetara joan eta kilometro-gastuei dagokie.

<sup>(1)</sup> Donostia-San Sebastiángo bulego-gastuei dagokie (garbiketa, telefonoa, faxa, bulego-gaiak... etxearen alokairu eta aseguruia izan ezik).

<sup>(2)</sup> Posta-gastuak, bulego-gaiak erostea e.a. biltzen du.

<sup>(3)</sup> Hurrenez-hurren, Onomastika eta Literatur Jardunaldietan hizlarietara ordutako gastuak jasotzen ditu.

#### • Alokairuak

Partida honen zenbatekoa Ribera kalean lekututako antzinako egoitzaren, Plaza Berriko aparkalekuren eta Donostia-San Sebastiángo bulegoaren alokairu gastuei dagokie.

#### • Konponketak

Atalburu hau ondoko kontzeptuok osatzen dute:

	Milaka-pta.
Ohizko konponketak.....	673
Tresneria konponketak.....	1.983
Informatika-ekipoen konponketak.....	35
Telefono zentralitako konponketak.....	7
Berogailu konponketak.....	50
Igogailu konponketak.....	628
Biltokiko konponketak.....	350
<b>Guztira</b>	<b>3.726</b>

- **Zerbitzu Profesionalak**

Zerbitzu honek, profesionarien zerbitzuak kontratatzeak eragindako gastuak besarkatzen ditu, ondoko eran zatibanatzen dena:

	Milaka-pta.
Zaintza zerbitzuak (egoitza eta biltokia) .....	2.281
Aholkularitza-gastuak .....	1.216
Nafarroako toponimia xehea .....	2.652
Lanpostuen balioztaketa .....	609
Euskeraren Jagon saila .....	132
Bestelako profesionarien zerbitzuak .....	219
<b>Guztira</b>	<b>7.109</b>

- **Garraioa**

Partida honek mezularitza-zerbitzuen gastuak, Euskaltzaindiaren furgonetak eragindako gastuak (gasolina, aseguru...) eta bestelako garraio gastuak besarkatzen ditu.

- **Aseguruak**

Saldo honek Ribera kalean lekututako pisuaren, Donostia-San Sebastiángo bulegoaren eta ordenagailu eta ekipo elektronikoen aseguru-gastuak biltzen ditu.

- **Banku-zerbitzuak**

Atal honetan bi kreditu-kontu eta hipoteka-mailegua gauzatzeak eragindako gastuak ez ezik, ordainagiriak kobratzeagatiko komisio eta banku gastuak ere biltzen dira.

- **Publizitatea eta Harreman Publikoak**

Partida honetan, 75. urteurrena ospatzeko egin diren publizitate-gastuak jasotzen dira.

• **Hornidurak**

Hona hemen partida honek biltzen dituen kontzeptuak:

	Milaka-pta.
Bulego gaiak .....	2.373
Argia .....	1.156
Gasa .....	673
Garbiketa .....	544
Telefonoa eta Faxe .....	2.398
Posta .....	1.066
Beste batzuk .....	86
<b>Guztira</b> .....	<b>8.296</b>

• **Bestelako Zerbitzuak**

Partida hau ondoko atalotan zati-banatzen da:

		Milaka-pta.
Osokoak hilabetero egiten dituen bilerengatik egunsari gastuak .....	(1)	3.529
Euskera Batuko batzordeari dagozkion egunsari gastuak .....	(1)	101
Gobernu Batzordearen leku aldaketa gastuak .....	(2)	1.773
Gainerako langilegoaren leku aldaketa gastuak .....	(2)	1.316
Askotariko gastuak .....		1.185
75. urteurrenaren antolaketa-batzordeari dagozkion egunsari gastuak guztira .....	(1)	132
<b>Guztira</b> .....		<b>8.036</b>

(1) Batzordeetara joateagatik egunsariak eta kilometrajea barne-hartzen ditu.

(2) Otordu, egonaldi eta garraio-gastuak biltzen ditu.

**3.12 ZERGAK**

Kontu honetako saldoa ondoko atalotan banatua dago:

	Milaka-pta.
Ekonomia-jardueren gaineko zerga (argitalpena) .....	44
Ekonomia-jardueren gaineko zerga (saltzailtza) .....	136
<b>Guztira</b> .....	<b>180</b>

Honela bada, kontu honetako saldoa Euskaltzaindiari egiten dituen bi jarduera ezberdinengatik eskatutako bi Ekonomia-jardueren gaineko zergak osatzen dute: liburuen argitalpena eta liburu eta aldizkarien saltzailletza.

### 3.13 LANGILEGO GASTUAK

Hona hemen kontu honek duen banaketa:

	Milaka-pta.
Soldata eta Ordainsariak .....	90.292
Gizarte Segurantzza .....	30.515
Bestelako Gastu Sozialak .....	400
<b>Guztira</b>	<b>121.207</b>

- **Soldata eta Ordainsariak**

Soldata eta Ordainsarien partidak ondoren zehaztu ditugun ordainketak biltzen ditu:

	Milaka-pta.
Zuzendaritza, gehi ordezkariak .....	7.829
Langilego finkoa .....	80.764
Aldi baterakoak .....	1.699
<b>Guztira</b>	<b>90.292</b>

Zuzendaritza izenpeak biltzen dituen soldata eta ordainsariak Euskaltzainburu, Buruorde (eta Gipuzkoako ordezkari), Idazkari, Arabako ordezkari, Nafarroako ordezkari eta Iparraldeko ordezkariari dagozkio.

Segidan 93.12.31n langilego-zerrenda zein eratarra banatzen den jaso dugu:

	Pertsona kopurua
Langilego finkoa .....	18
Aldi baterakoak .....	1
Hiztegia Batzordearen egitasmorako langilegoa .....	10
Kontratupekoak .....	8
Bekadunak .....	1
Beste batzuk .....	1
Atlas Batzordea (kontratupekoak) .....	4
Onomastika Batzordea (bekadunak) .....	2
Lexiko Batzordea (bekadunak).....	1
	36
Zuzendaritza gehi ordezkariak (1) .....	6
Guztira	42

(1) Atal hau osatzen duten sei pertsonen ez dute inolako kontraturik.

Egitasmoetako langilegoari dagozkion ordainketak ez dira soldata eta ordainsariak atalean bildu, egitasmo horiei egozgarri diren gastutzat hartzen baitira (4.11 atala).

- **Gizarte Segurantza**

Partida honetan langilego finkoaren eta Hiztegi eta Atlasaren egitasmoetan diharduen langilegoaren Gizarte Segurantzak eragindako gastua jaso da.

- **Bestelako Gastu Sozialak**

Partida honek langilegoaren aseguru gastuak eta mediku-azterketen gastuak biltzen ditu.

### 3.14 FINANTZ GASTUAK

Hona hemen partida honen zati-banaketa:

	Milaka-pta.
Hipoteka maileguaren interesak .....	520
Beste interes batzuk .....	2.726
Guztira	3.246

Beste interes batzuk kontuaren saldoa, Euskaltzaindiak irekiak dituen kreditu-kontuetatik erabilitako kapitalak sortu dituen interes gastuek ez ezik, gainerako banku-kontuen zor egoerak eragindako interesek ere osatzen dute.

## **4. KUDEAKETARI BURUZKO ALDERDI AIPAGARRIAK**

### **4.1 ANTOLAKUNTZA**

Hogehitalau euskaltzain osoz, euskaltzain urgazle eta euskaltzain ohorezkoz osatua da Euskaltzaindia. Euskaltzain urgazle eta ohorezkoentzat ez da muga jakinik.

Euskaltzain osoen artean Zuzendaritza osatuko duten kideak hautatuko dira, Euskaltzainburu, Buruorde, Idazkari eta Diruzaina alegia.

Euskaltzaindiaren xedeak, estatutuen lehenengo artikulua arabera, honako hauek dira:

- a) Euskararen gramatika legeak ikertu eta mamitzea.
- b) Hizkuntza honen idazlangintzarako argibideak eta arauak ematea.
- c) Hiztegia biltzea.
- d) Bai hiztegian eta bai gramatika eta grafian ere, literatur hizkera batura heltzeko lan egitea.
- e) Euskararen enplegua aitzinatzea.
- f) Hizkuntzaren eskubideak zaintzea.
- g) Hizkuntza, gizarte maila guztietan gai bihurtzeko, lan egitea.
- h) Literatur eta ikas lehiaketak eragitea.
- i) Filologia eta linguistikako estudioak sustatzea, euskara eta euskal literaturaren irakas-aulkiak sortuaz.
- j) Hartako titulu eta agiriak ematea.

1 eta 2 zk.dun Eraskinetan Euskaltzaindiak emandako jarduerazko organigrama eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren eta Nafarroako Comptos Ganbararen lantaldeak hezurmamitutakoa ikus daiteke.

Bi organigrama hauen azterketatik eta egindako lanetik ezaugarri hauek ondorendu ditugu:

- Erakundearen egiteko akademikoen eta kudeaketazkoen artean ez dago bereizketa garbirik.
- Langilegoaren menekotasun eta egitekoak eta Euskaltzaindia osatzen duten sailak ez daude behar bezain zorrotz bereiziak.
- Erakundearen arautegia, orohar kudeaketarako baliabiderik ez zutelako, lehenago bizi izandako egoera baten ondorio da; gaur egun, ordea, administrazioekin izenpetutako Akordioaren ondorioz, gaina hartu zaio egoera horri.

- Ez dira administrazio-jokabide argiak finkatu Akademiaren jarduera ezberdinak kudeatzeko.
- 1992 eta 1993an aholkularitza zerbitzuek mamitutako bi lanen ondorioz, hainbat aldaketa egin dira Euskaltzaindian, esate baterako, aurrekontuzkoa zen lehengo kontularitza sistema utzi eta ondarezko kontabilitatera aldatu da eta teknikazko koordinaketa lanak egiteko teknikari bat kontratatu da. Halaz guztiz ere, egindako gomendioen ezarpena ez dela behar hainbateko arintasunez egin esan behar da.

## 4.2 BATZORDEAK

3. Eraskinean Euskaltzaindiaren akademi-egituraren organigrama ikus daiteke. Hona hemen, hitz-labur esanda, batzorde bakoitzaren zertarako nagusiena:

### A) IKERKETA BATZORDEA

- 1.- Orotariko Euskal Hiztegia.
- 2.- Hiztegi Batua. Akademiaren Hiztegi Ofiziala egitea.
- 3.- Lexikologia Erizpideen Finkapena. Hizkuntzari hitz berriak txertatzea.
- 4.- Gramatika
- 5.- Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa. Aurrez hautatutako tokietan hitz ezberdinen hizkuntz-aldakiak bilduko dituzten mapak egitea.
- 6.- Euskalkien Ikerketa Arruntak.
- 7.- Onomastika arrunta. Izenak finkatu.
- 8.- Exonomastika. Kanpoko toki-izen, herrialde, deitura eta abar finkatzea.
- 9.- Herri Literatura. «Ahozko literatura» bildu.
- 10.- Literatura-Ikerketa. Metrika, literatur-genero, e.a.en kontzeptuak zehaztu eta argitu.

### B) JAGON ETA EGITURAZKO BATZORDEAK

- 11.- Jagon Saila. Hizkuntzaren erabilera zuzena zaindu.
- 12.- Azkue Biblioteka. Bibliotekaren funtzionamenduari buruzko gaiak aztertu.
- 13.- Argitalpenak. Akademiaren argitalpen-plangintza finkatu.
- 14.- Juridikoa. Akademiari lege-aholkularitza eman.

### C) BATZORDE SUNTSIKORRAK

15. Euskara Batukoa. Euskara Batuari buruzko erabakiak hartu.
16. Urteurrena. Urteurreneko kongresua prestatu.
17. Fonologia
18. Hizkuntza-Eskakizunak.

Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren eta Orotariko Hiztegiaren batzordeek, berariaz horietan lan egiteko kontrataturiko langilegoa dute; gainerako batzordeetan berriz, euskaltzainak berak aritzen dira, inongo lan-loturarik gabe.

Orotariko Euskal Hiztegia, Lexikologia eta Onomastika Batzordeek bekadunen laguntza jasotzen dute.

Orohar, B eta C multzoetako batzordeek duten izaera bereziaren ondorioz, ez dute urteko programaketarik, baizik eta sortzen diren beharriaren arabera dihardute.

Herri-administrazioekin 1993rako izenpetutako Akordia eraskinean aurrikusi ziren helburuak betetzeari dagokionez, orokorrean, A multzoko batzordeek aurrikusitako helburuak bete direla esan dezakegu, segidan azalduko ditugun Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren eta Orotariko Hiztegiarenak salbu.

### 4.3 EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA ETA OROTARIKO HIZTEGIA

Erabilitako baliabideei dagokionez, gaur egun Euskaltzaindia lantzen ari den egitasmorik garrantzitsuenak dira.

Atlasean lau pertsona ari dira egun osoz lanean eta Hiztegian berriz, zazpi lagun, bekadun bat eta Euskaltzain oso den zuzendaria, ordu batzuetarako, nahiz eta litekeena den urtean zehar pertsona gehiago kontratatu izatea. Bi egitasmo hauen urteko kostua, gizarte Segurantzaren barne dela, gutxigora behera 81 milioi pta.koa da.

1992 eta 1993an egindako aholkularitza-lanen ondorioz, hainbat arazo azaleratu ziren, hein handiago edo txikiagoan bi lanetan eragina zutenak eta hiru atalotan laburbildu ditugunak:

- Egitasmoen zehaztapen eta lanen plangintza eskasa.
- Lanen bilakaerari buruzko hainbateroko kontrola egiteko zailtasuna, bai helburuak azaltzeko moduagatik, bai behar adinako informaziorik ez izateagatik.
- Taldekideak toki ezberdinetan sakabanatuak egotea.

1993an koordinatzaile-teknikari postuan batzorde ezberdinak beren artean lotu eta egitasmoak kontrolpetu eta zainduko zituen pertsona bat jarri bazen ere, badira hainbat alderdi bi lanotan, duten jatorri historikoagatik konponbide nekeza erakusten dutenak.



Hiztegi-lanei 1984an ekin zitzairen eta zenbait aldaketa egin ondoren sei eman dira argitara, gaur egun osotara egin asmo diren 14 aleetatik. Honegatik, egitasmoaren zehaztapena osatutzat jo daiteke.

1993rako aurrikusitako helburuei dagokienez, ondoko betetze-maila izan dute:

HELBURUA	BETETZE-MAILA	%
6. alea argitaratzea .....		100
7. alearen azken laurdena erredaktatzea .....		100
7. alearen adibide eta izenburuak egiaztatu eta zuzentzea .....		60
8. alearen % 75a erredaktatzea .....		25
8. alearen sarreran bildutako adibide eta izenburuak egiaztatu eta zuzentzea .....		0

Hizkuntz Atlasari 1985ean ekin zitzaion eta magnetofono-grabaketa bitartez inkestak gauzatu eta zinta horiek paperetara aldatu dira; transkribapen informatikoari ere heldu zaio eta azken urratsa datu horiek berariaz prestatutako programa batean biltzea da, bertatik kartografiara aldatu ahal izateko. 1993rako Hitzarmenaren eraskinean aurrikusitako helburuen betetze-maila honako hau izan da:

HELBURUA	BETETZE-MAILA	%
1. aleko datuak P.C.n sartzeta .....		65
Aplikazio informatikoaren zirriborroa .....		100
1. aleko datuak mamitu eta kartografia-lanei ekitea .....		0
2. aleko datuak P.C.n sartzeta .....		0

Hizkuntz Atlaserako aurrikusitako helburuak ezin gauzatu izan dira, batipat egitasmoak duen zehazgabetasunagatik eta edukian ez ezik informatika lanean ere eragina izan du. Helburu horiei, aurrikasi ez zen arren gauzatu den beste helburu bat erantsi behar zaie, gerora ordenagailuan sartuak izateko lehenengo alearen datuen prestalana alegia.

Gaur egun, Hiztegiaren eta Atlasaren lanek, hurrenez hurren, gutxigora behera zazpi eta hamar urte iraungo dutela uste da; egitear dagoen bi lan hauen kostua, gaurkotutako pezetetan gutxienez 650 milioi pezetakoa izango dela zenbatetsi da.

#### **4.4 LIBURUTEGIA**

Akademiaren liburutegiko gune nagusia, lehenengo Euskaltzainburu izan zen R.M. Azkue Jn.aren fondoak osatzen du. Fondo hau, erosketa, truke, emakida eta utzitako liburuekin osatu da, gaur egun gutxigora behera 90.000 «ale»ko (era guztietako dokumentuak) fondoa borobildu delarik.

Jendearentzako irekia dagoen liburutegi hau, Bilboko Plaza Berrian dagoen etxe berriaren azken solairuetan lekutzen da.

Euskaltzain oso den liburuzainaz gain, hiru teknikaririk dihardute bertan lanean.

Gaur egun, azken urteotan eskuratutako fondoak euskarri informatikoan daude zerrendaratuak. Fondoan «txartela» dagoen arren, zenbaitetan «ale» sorta bati dagokio (gutunak, e.a.). Egoera honen ondorioz, liburutegiaren erabilera hein handi batean bertako langileek liburuez duten oroimen eta ezagutzari meneratua dago, ikertzaileen erabilera-esparrua mugatua geratzen delarik.

Hizkuntz Atlas hezurramitzeko aurretik egin behar izan den prestalana 2.400 zinta magnetikotan dago jasoa, guztiak ere liburutegian gordeak. Zinta hauek, biltzen dituen euskarri motagatik, hondatzeko arrisku handia dute, eta euren historia eta hizkuntz-balio itzela gogoan hartuta -euskara galtzen ari den esparruetan jasotakoek batez ere-, komenigarria litzateke iraupen luzeagoko beste euskarri mota batera aldatzea.

#### **4.5 EKONOMIA-FINANTZAZKO EGOERA**

1993. urtealdia 45,7 milioi pta.ko zor-emaitzarekin itxi da; honez gain, 93.12.31n banku-maileguekin ordaindutako finantz-beharrizanak 48 milioi pta.koak izan ziren. 4.1 atalean azaldu dugun modura, administrazioentzat aurrikusitako diru-ekarpena aurreko urtearekiko 28 milioi pta.n gutxitu da, 1989an emandako kopuru-maila berera jaitsiaz; honenbestez, finantz-iturri berririk aurkitu ezean, 1994. urtealdia ments handiagoarekin itxiko da.

Are larriagoa da Euskaltzaindiaren finantz-egoera, Arabako Foru Diputazioak 1994ko uztailaren 31n sartu gabe zuelako 1993. urteari zegokion dirulaguntzaren % 50a, eta baita beste batzuen dirusarreretan azaleratu diren hainbat atzerapenagatik ere.

Emaitzen kontuetatik eratorritako ondoko datuotan garbi ikus daitekeen moduan, Euskaltzaindiaren gastuak egungo lana burutzeko finkoak direla pentsa daiteke, Erakundeak eman beharreko zerbitzuak gutxitu gabe gastu horiek murrizteko oso tarte txikia dagoelarik.

KONTZEPTUA	Miloi-pta.	%
Langilego finakoak eragindako gastuak .....	110,5	47
Egitasmoetako langilegoak eragindako gastuak .....	91,3	38
Zerb. profesionalak eta homidurak .....	21,7	9
Bestelako gastuak .....	8,8	4
Finantz gastuak .....	3,1	1
Liburu-erosketa .....	2,6	1
Guztira	238,0	100

Gastuen banaketa honetan ez dira Euskaltzaindiak 1993. urtean egindako argitalpenei dagozkien gastuak barne-hartu, maiz gastu horien aldean argitaratuak izateko dirulaguntzak jasotzen baitzituzten. Hona hemen Akademiaren argitalpen-jardueraren sailkapena, argitalpen bakoitza dagokion kostu, dirulaguntza eta salmentetatik eskuratutako dirusarrerekin batean agertzen dela.

Argitalpena, 1993	Kostua	Salmentak	Harpidetza	Dirulagun.	Emaitza
Euskera-92 Aldizkaria, 1 eta 2 .....	(4,8)	0,1	1,3	-	(3,4)
Nafarroako aditz laguntzailearen morf. .	(3,3)	0,3	-	3,8	0,8
Iker 7 .....	(1,5)	0,5	-	-	(1,0)
Gramatika Laburra .....	(2,6)	0,3	-	1,5	(0,8)
Beste batzuk .....	(2,2)	-	-	0,8	(1,4)

Orohar, 1000 eta 1500 ale bitarteko emanaldiak egiten dira, izan ohi duten zabalkuntzaren arabera gehiegizkotzat jo daitezkeenak. Saldu ez diren aleak biltoki batean daude gordeak.

#### 4.6 GOMENDIOAK

Euskaltzaindiaren egoera juridikoa aztertu eta egungo egoerari egokitu zaion araudia tajutzea gomendatzen dugu, herri-agintek Akademiarekiko hainbat konpromezu beretuak baitituzte eta honenbestez, zailtasun materialak zituen aurreko aldiari gaina hartua baitzaio; gutxien-gutxienik gogoan hartu behar da iadanik ez dela ez Kontulariaren irudirik ez Ekonomia Batzorderik esistitzen; gainera, Ordezkaritzetan ez dago Kontseilurik eta Euskaltzainburugoa ez da osatu; orobat, Erakunde-egoitza aldatzea eta estatutuetan Jarraipen eta Kontrolerako batzordeak barne-hartzea gomendatzen dugu.

Akademiaren berezko egitekoak eta administraziozkoak bereizi egin behar dira, aginte eta ardura-mailak sailkatu eta argituaz eta Akademiako kudeaketa-sail ezberdinen eginkizunak garbi finkatuaz. Akademia-egitekoak bete gabe, ekonomia-administraziozko lan guztiak zuzendu, lotu eta bere gain hartuko dituen norbait izendatzea komeni da.

Segun eta zein antolakuntza gauzatzen den, hainbatero sail bakoitzari beren egitekoak gauzatu ahal izateko beharrezko edo komenigarri den informazioa ezagutzea bideratuko dion informazio-sistema ezarri behar da. Badira, noski, kudeaketa zuzena egiteko oinarrizko diren alderdiak, besteak beste, egoera ekonomikoa, egitasmo ezberdinen unean uneko egoera, e.a., duten garrantziagatik informazioa hilabetero egitea eskatzen dutenak.

Akademiaren oinarrizko egitekoak jasoko dituzten jarraibideak idatziz finkatu.

Urte hasieran batzorde bakoitzaren helburuak zehaztu, horien betetze-maila balio-neurtua izateko moduan.

Egitasmoak hasi aurretik guztiz mugatu. Zehatzago esanda, gutxienez lanen hedapena eta edukia, nori zuzendua dagoen eta zein formatorekin aurkeztu behar diren, lanen iraupena, erabiliko diren baliabideak eta horien kostua, e.a. zorrotz finkatu behar dira.

Hizkuntz Atlasaren eta Orotariko Hiztegiaren egitasmoen gainean behin-betiko plangintza mamitu, gerora oinarrizko aldaketak egin edota egitasmoa berriotik zehazteko beharrean gerta ez dadin.

Liburutegiko fondoak zerrendaratzeko plangintza finkatu, hartara liburutegiak Euskaltzain eta ikertzaileei zerbitzu hobea eman dakien, beharrezko diren baliabideak, lana egiteko denbora eta kostua garbi zehaztuaz. Gainera, balio-neurtu egin beharko litzateke Hizkuntz Atlasa egiteko magnetofono-grabaketen euskarriak duen galtzeko arriskua eta komeni da material hori beste euskarri iraunkorrago batean biltzeak eragingo lukeen gastua aztertzea.

Kostuak murriztearren komenigarria litzateke argitalpenen politika berraztertzea, bai edizio txikiagoak eginez, bai argitalpen horientzako babesleak aurkituz. Biltokian jasoak dauden liburu-sailei irtenbiderik emateko modua egin beharko litzateke, nekeza baita duten antzinasunagatik merkaturatzea; hortxe dago, berebat, erakunde publikoei, heziketazkoei, e.a. banatzeko aukera.

Administrazio Publikoek Akademiarekiko beretu duten konpromezua zenbaterainokoa den argitu behar da, urteko aurrekontutik zenbateko kopurua finantzatu behar duten eta zenbat den finantzaketarik gabe geratuko dena jakitearren, hartara Euskaltzaindiak bestelako finantzaketa-iturriak bila ditzan.

Atal honi dagokionez, berriz ere, gastuek erakusten duten zorrotasuna azpimarratu behar dugu, ia gehienak langilegoaren atalburuari dagozkiola.

Dagoen mentsa murriztu eta urteko aurrekontua orekatzeko plangintzaren bat hezurramitzea gomendatzen dugu, horretarako, herri-administrazioetatik jasotzen den dirua alde batera, bestelako diru-iturririk aurkitzea ezinbestekoa izanik. Baldin eta aurrekontuzko oreka lortzeko diru-sarrerak areagotuko ez balira, langilego gastuak gutxitu beharko dira, honek zerbitzu edo egitasmoei eragin diezaiekeen kaltearekin.


Orobat, diruzaintza Comptos ordainsariak berrikusi eta dauden mailegu eta kreditu-kontuen baldintzak berriz negoziatzea gomendatzen dugu.

Herri-Administrazioekiko Akordioa aurten berri behar denez gero, finantzaketarako bide bikoitza urratzeko modua azter daiteke:

- a) Administrazioek Akademiaren egitura-gastuetatik ehuneko finkoa finantzatzeko hitza ematen dute (egoitza eta ordezkarietzako langilegoa, gastu arruntak, hainbat argitalpen, e.a.).
- b) Egitasmoetarako aparteko finantzaketa bideratu (Atlasa, Hiztegia, Liburutegiaren zerrendaraketa, Argitalpenen Urteko Plangintza, e.a.). Modu honetara, administrazioek egitasmo baten finantzaketa onartzean nolabaiteko lankidetzaitune bihurtuko litzateke, alderdi bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta eskubideak jasoko lituzkeena.


# EUSKALTZAINDIA

EUSKALTZAINDIAK AURKEZTUTAKO  
EGUNGO ORGANIGRAMA




# EUSKALTZAINDIA

## HKEEak ETA NCGk PROPOSATURIKO EGUNGO ORGANIGRAMA



LANGILE-ZERRENDA: 36 PERTSONA (Une honetan 19 pertsona langile bezala eta 17 ikerteta lanetarako hitzarturik).



Taulen alboetako zenbakitxoek, batzordeak osatzen dituzten pertsona kopurua adierazten dute. Pertsona bat bera batzorde ezberdinetako partaide izan daiteke.

Batzordekide horien kopuruetan Orotariko Euskal Hiztegi Azpibatza eta Hizkuntz Atlasa Azpibatza bakarrik dutela alogera.



## **HKEE-REN ETA NAFARROAKO COMPTOS GANBARAREN SARRERA**

Indarrean dagoen lege-araudia erabiliaz, HKEEak eta Nafarroako Comptos Ganbarak Euskaltzaindiari 93-12-31n finantz-egoeren gainean egindako Fiskalizazioaren emaitzak bere iritzia azal zezan igorri zizkioten. Azaldutako arrazoibideen ondorioz eta kasu honetan agiri-sorta berria aurkeztu izanaren ondorioz, bi erakundeek aldatu egin dute hein batean txostena. Testu honen aurretiko orrialdeetan bildutakoa, finantz-egoera horien gainean duten azken iritzia da.

Segidan Euskaltzaindiako buruek aurkeztutako arrazoibideak hitzez-hitz aldatu ditugu, epaitegi honen eta Nafarroako Comptos Ganbararen iritziz hainbat egintza edo irizpide zehatzi buruzko azalpen ez onargarriak izateagatik gogoan hartu ez direnak. Ez da beharrezkoa iruzkin horiei xehetasunezko erantzuna ematea, txostenaren edukiak garbi asko erakusten baitu bi erakunde fiskalizatzaileen iritzia.

## ARRAZOIBIDEAK

Hasteko esan behar da Epaitegien Txostena orohar onargarria dela eta ematen dituen gomendioak betetzeko modukoak, azken batean, Akademi-erakundearen mesedetan.

Bestalde, puntu zehatzetara loturik, honako aldaketa proposamenak aurkezten dira:

### 4.1 ANTOLAKUNTZA

*Erakundearen egiteko akademikoen eta kudeaketazkoen artean ez dago bereizketa garbirik.*

Testu honi, beste testu hau gehitzea proposatzen da:

Nahi adina ez dagoela argi dago baina hori gertatzen bada orain arte izan eta ditugun baliabideengatik eta, ondorioz, erakundeak duen azpiegitura urriagatik gertatu da.

*Langilegoaren menekotasun eta egitekoak eta Euskaltzaindia osatzen duten sailak ez daude behar bezain zorrotz bereizirik.*

Testu honi, beste hau gehitzea proposatzen da:

Gorago aipatu berri den bezala, azken urteotan batez ere, Euskaltzaindikoko langileek sarri askotan zuzenean bere lanpostuei ez dagozkien hainbat lan burutzen aritu behar izan dira Erakundearen iharduerak hala eskatzen zuelako eta ekintzak eta ospakizunak kanpoko zerbitzuak alokatu gabe egiteko asmoz.

*Erakundearen arautegia, orohar kudeaketarako baliabiderik ez zutelako, lehenago bizi izandako egoera baten ondorio da: gaur egun, ordea, administrazioekin izenpetutako Akordioaren ondorioz, gaina hartu zaio egoera horri.*

Testu honi, beste hau gehitzea proposatzen da:

Arautegia eta Erregelak egokitu berri dira 1993-1994 urteetan. Honez gain Erakundeak izan dituen baliabideen arabera eten gabe eta «de facto» eguneratzen ihardun da eta 1989an sinatu zen Hitzarmenak ez zuen bat-batean aldatu iharduera hori, hasiak zeuden egitasmo eta ekintzentzat dirubaliabideak zentzu orokor batean ziurtatzera eta finkatzera etorri baizik.

*Ez dira administrazio-jokabide argiak finkatu Akademia jarduera ezberdinak kudeatzeko.*

Testu honen ordez:

Ezin izan dira administrazio-jokabide argiak finkatu Akademiaren jarduera ezberdinak kudeatzeko.

Testu honen ordez:

Ezin izan dira administrazio-jokabide argiak finkatu Akademiaren jarduera ezberdinak kudeatzeko.

*1992-1993an..... behar hainbateko arintasunez egin esan behar da.*

Testu honen ordez, beste testu hau proposatzen da:

Behar hainbateko arintasunez egin ahal izan esan behar da.

Amaitzeko azpimarratu nahi da, Euskaltzaindiko kide gehienena, borondatezko lana dela, alegia, euskaltzain osoak, euskaltzain urgazle-batzordekideak ez direla beraiek Akademia-Erakundeari ematen dizkien ikerketa eta irizpen lanetatik bizi. Horregatik, bada, ezin da Euskaltzaindia enpresa gisako etxe baten antzera hartu ez eta irabazte-xededun antzera ere, arduradun nagusiak bere bizibidea erakundez kanpo dutelako; baizik eta euskararen ikerketa eta Arau-emaile legez. Bestalde, Euskal Autonomi Estatutuak 6.4. artikuluan dioen bezala «Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia izango da erakunde aholku-emaile» eta Nafarroako Euskararen Foru Legearen 3.3. artikulua eraberean hau dio. «3. Hizkuntz arauak ezartzeko ondorioetarako, Euskaltzaindia izanen da erakunde aholkuemaile ofiziala, eta berari eskatuko dizkiote botere publikoek aurreko idazatian ezarritakoa betetzeko beharrezko zaizkien txosten eta diktamenak».

Euskaltzaindiak asko aurreratu du bere erakundetze normalizazioan 1976an hasi Estatuak onartze Dekretua eman zionean, jarraian *Bai Euskarari* eta beste kanpaina batzuei esker eta 80.eko hamarkadan garatu, berau Autonomi eta Foru administrazioek eman duten dirulaguntzei esker, baina baita euskal gizarte zibilaren eskakizunen arta izanik Erakundea bera eguneratzen saiatu delako ere. Geratzen zaio, ordea, erronka askori erantzun beharra: euskararen ikertze, arautze eta hedatze-lanetan. Horretarako giza-baliabideak bilatu, lortu, egituratu eta hornitu beharko ditu; hau guztiau herri-diruz, gehienbat, egin beharko duelarik.

Bilbon, 1994.eko abenduaren 14ean.

## 1. INTRODUCCIÓN

En virtud del Acuerdo Marco de Colaboración firmado entre el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas - Herri Kontuen Euskal Epaitegia- y la Cámara de Comptos de Navarra - Nafarroako Comptos Garbara, se ha procedido a realizar por primera vez de manera conjunta la fiscalización de Euskaltzaindia -Real Academia de la Lengua Vasca-.

Para ello se formó un equipo mixto de trabajo bajo la dirección conjunta de ambos organismos.

Euskaltzaindia fue creada en 1918 en el 1<sup>er</sup> Congreso de Estudios Vascos celebrado en la antigua Universidad de Oñate del 1 al 8 de setiembre de dicho año, aprobando sus estatutos las Diputaciones de Alava, Bizkaia, Navarra y Gipuzkoa el 7 de octubre de 1919.

